

Galdera

Nola deklinatzen dira ehunekoak?

Erantzuna

Marratxorik gabe. Mugagabeen **NOR** kasuan (*kontinentearen % 5 izotza da [eta ez * % 5a]*), **NORK** kasuan (*garaiz egin ditu lanak ikasleen % 78k [eta ez * % 78ak]*) eta **NORI** kasuan (*Gaixoen % 7ri gertatu zaio [eta ez * % 7ari]*).
Leku-deborazko kasuetan, ordea, singularrean jokatzeko dira (*irabaziak % 7tik % 15era igo arren, % 7,3ko etekina atera du bazkideen % 82k [eta ez irabaziak * % 7etatik * % 15etara igo arren, * % 7,3tako etekina atera du...]*).
Osagarria denean, berriz, mugatu singularrean jokatu behar da (*Udalak % 35 ordaintzekotan, Foru Aldundiak % 25, eta gainerako % 40a geuk [eta ez * % 40]*).

Ikus dezagun zer dioten EIMAK, Euskara Batuaren Eskuliburuak eta Euskaltzaindiak.

1/ EIMAREN Estilo-liburua. Ortotipografia

https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/eima_estilo_liburu/eu_def/adjuntos/ortotipografia.pdf#page=45&zoom=100,0,0

Ehunekoak

1. Ehunekoa digituz idazten da, % sinboloaren eskuinean kopuru zehatza emanez eta bien artean **hutsune** bat utziz.
% 7 % 15 % 82 % 7,3 % 11,45
2. % sinboloaren euskal izena ehuneko da. Hortaz, ehunetik, ehunetarik eta gisako hitzak letraz letra baizik ezin dira idatzi; ez baita kasu bera.
3. Ehunekoa deklinatzeko, % sinboloaren eskuinean digituz adierazitako zenbakia deklinatu behar da, kasuan kasuko atzizkia erantsiz **marratxorik gabe**.
Irabaziak % 7tik % 15era igo arren, % 7,3ko etekina atera du bazkideen % 82k.
4. Ehunekoa zenbat hitzaren erudian deklinatzen da eta, beraz, **mugagabean** jokatzeko da; **salbu** eta, aurretik emandako ehuneko kopuru(ar)en **osagarri** delako, mugatu singularrean jokatzeko den kasuan.
Kontinentearen % 5 izotza da. (eta ez * % 5a)
Udalak % 35 ordaintzekotan, Foru Aldundiak % 25, eta **gainerako % 40a** geuk.
5. Ehunekoak **singularrean** egiten du aditzaren **komunztadura**.
Ikasleen % 78k garaiz egin ditu lanak. Bezeroen % 57,32 pozik dago.
Sagarren % 31 kanpotik ekartzen dute. Gaixoen **% 7ri gertatu zaio**.
Oharra: **Testuinguru bereziren batean, pluraleko erreferenteak** berera ekar dezake komunztadura.
Zuetariko % 87k ondo gairatu du/duzue azterketa.
Zein bere hizkuntzan mintzatu zen/ziren hizlarien % 20.
6. Ehunekoa dagokion hitzaren ondoren idatzi behar da % sinboloa.
Botoen % 24 bereganatu du alderdi horrek.
Eta ez * % 24 boto bereganatu du alderdi horrek.
Baina zuzenak dira honelakoak:
Ehunetik (ehunetarik) hogeita lau boto bereganatu ditu alderdi horrek.
% 1,4 igo dira prezioak. (eta ez * % 1,4an)

2/ Euskara Batuaren Eskuliburua

https://www.euskaltzaindia.eus/index.php?option=com_ebe&view=bilaketa&Itemid=1161&task=bilaketa&lang=eu&id=467

ehuneko (%)

Euskaltzaindiak arau hauxe baino ez dauka emana ehunekoei buruz: "Ehuneko hainbeste adierazteko marka, zenbakiaren aurretik jar bedi. Adibidez: % 5 = ehuneko bost" (*Euskera*, XVI, 1971). Gainerako jarraibideak azken urteotan gizaratean errotuz joan diren hitzarmen aski hedatu eta onartuak dira.

LEXIKOA. Sinonimo gisa, *portzentaje* hitza ere onartua dago (ez hala * *portzentaia*), baina *ehuneko* da forma estandar nagusia. **[EH]**

SINBOLOA. <%> da sinboloa, eta haren euskal izena, *ehuneko*. Kopurua digituz idazten da eta % sinboloa zenbakiaren aurretik, bien artean **hutsunea** utzita: % 7 (* % 7). Letraz ere eman daiteke: ehuneko zazpi.

JOSKERA. Ehunekoa dagokion hitzaren ondoren idatzi behar da sinboloa: ikasleetatik % 55, ikasleen % 55, botoen % 47. Molde hori finkatu da ikurra erabiltzen denean. Ikurrarekin, beraz, ez da komeni % 55 ikasle, % 47 boto moldea erabiltzea.

Zuzenak dira molde hauek ere: ehunetik/ehunetarik 55 ikasle, ehunetik/ehunetarik 47 boto...

KASU-MARKA. Sinboloaren eskuineko digituari lotzen zaio kasu-marka, dagokion atzizkia erantsiz **marratxorik gabe** (eta -e- epenetikoaren premia zainduz). Adibidez:

Irabaziak % 7tik % 15era igo arren, % 7,3ko etekina atera du bazkideen % 82k.

Ehuneko ZENBAT galderaren eredian hartzen da eta, beraz, mugagabean jokatzeko da: Gazteetan, % 7 azkarra da (* % 7a). Gazteetan, % 7k badaki (* % 7ak). Kontinentearen % 5 izotza da (* % 5a).

Hala ere, aurretik emandako ehuneko kopuru(ar)en **osagarri** delako-edo ezaguna bada —*gainerako*, *beste* edo *gisako* elementuren bat darama orduan—, mugatu **singularrean** jokatzeko da. Adibidez: Udalak % 35 ordaintzekotan, Foru Aldundiak % 25, eta **gainerako % 40a geuk**. Herritarren % 24 ados dago, baina *beste* % 76a ez. Gutxi iruditu zait bankuan *eman didaten* % 6a.

ADITZAREN KOMUNZTADURA. **Erreferentzia plurala** denean, ohikoa da **pluralean** komunztatzea: 4*ri* ez *zaie* tokatu ezer ere, eta 2*ri* bai. Hala uste *dute* galdetegian parte hartu dutenen % 36k. Talde horretako % 48,3 hispanoamerikarrak *dira*. Nolanahi ere, **singularrean ere komunzta daiteke**: Gazteen % 8 katoliko praktikantea da. Ikasleek proba bakoitzaren itemen % 20 gainditu behar izan dute.

Erreferentzia singularra (zenbakaitza) bada, singularrean: Aurrekontuaren % 15 ez du gastatu oraindik. Elektrizitatearen % 30 haizetik lortzen dute.

ZENBAT, ZENBATEZ / ZENBATEAN. Aldea adieraztean, ZENBAT eta ZENBATEZ erabiltzea da molde egokia (eta ez ZENBATEAN), ehunekoekin nahiz bestela:

*** Prezioak % 5ean igo dira** (> Prezioak % 5 igo dira. Prezioak % 5ez igo dira).

ZENBATEAN (NOLA) zuzena eta egokia da, jakina, honelakoetan: Arropa % 50ean jarri dute merkealdian. Urtegiak % 30ean daude lehortearen ondorioz. (→ *igo*)

Proporzioak, ehuneko bidez ez ezik, zatiki edo frakzioen bidez ere adierazten dira. (→ **zatikiak eta proporzioak**)

Gehiago jakiteko

EUSKALTZAINDIA. "**Zenbakiak: ehunekoak (% 22k idatzi dute / *% 22ek idatzi dute)**", *Jagonet galde-erantzunak*.

— "**Zenbakiak: ehunekoak (% 25etik / % 25etatik; % 1ak / % 1ek)**", *Jagonet galde-erantzunak*.

ZUBIMENDI, Joxe Ramon (2004). *Ortotipografia*. Gasteiz: Ikasmaterialen Aholku Batzordea (EIMA)-Eusko Jaurlaritza (45).

PETRIRENA, Patxi (2011). *Morfosintaxiaren inguruko zalantzak eta argibideak*. Gasteiz: Ikasmaterialen Aholku Batzordea (EIMA)-Eusko Jaurlaritza (132).

ETXEBARRIA, Jose Ramon (2011). *Zientzia eta Teknikako Euskara Arautzeko Gomendioak*. Gasteiz: Ikasmaterialen Aholku Batzordea (EIMA)-Eusko Jaurlaritza. (72, 89, 106).

EHUko Euskara Zerbitzua (2008). "**Ehunekoak**", *Ehulkuren aholku guztiak*.

ALBERDI, Xabier, SARASOLA, Ibon (2001). *Euskal estilo libururantz*. Bilbo: UPV/EHU (71-72).

EHUko Euskara Institutua (2012). "**-n merkatu/garestitu**", *Kalkoen Behatokia*.

3/ Euskaltzaindia

(https://www.euskaltzaindia.eus/index.php?option=com_hiztegia&Itemid=189&lang=eu&view=frontpage&bila=bai&sarrera=ehuneko)

ehuneko

- 1 iz. **Ehunek osaturiko gauza; ehun unitate dituen multzoa.** *Hamarrekoak eta ehunekoak.*
- 2 iz. (Zenbatzaile baten ezkerrean). *Ehuneko hamar ematen dio. Ehuneko hainbestean mailegatu. Ehuneko hogeita bosten irabaziarekin. Ehuneko hirurogeita hamarrek baino gehiagok badakite galesez.*
- 3 iz. **Ehun zenbakia erreferentziatzen hartzen duen proporzioa.** *Heriotzen ehunekoak. Ehuneko hori ez da beti berdina. Ehunekoak kalkulatu.*